

KOD.: A207

ARKITEKTURA TEKNIKOA

**LEHEN ARIKETA
BIGARREN PROBA**

**Denbora, gehienez: 100 minutu.
Galderak: 100.**

EREDUA:

D

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun ereduak.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1,00
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduaren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berrikerik emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

1.- Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, hau izango da Telekomunikazio-ingeniarren Goi-mailako Eskola Tekniko baten eraikuntza-proiektua idazteko gaitzen duen titulazio akademiko eta profesionala:

- a) Eraikuntza-ingeniaria.
- b) Arkitektoa edo Eraikuntza-ingeniaria.
- c) Telekomunikazio-ingeniaria.
- d) Arkitektoa.

2.- Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, eraikuntza-prozesuan esku hartzen duten agenteek epe jakin batez erantzungo dute zimenduei, euskarriei, habeei, forjatuei, karga-hormeiei eta bestelako elementu estrukturaleri eragiten dieten makur edo akatsek eraikinean sortutako kalte materialen aurrean, eraikinaren erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna zuzenean arriskuan jartzen dutelarik:

- a) hamabost urte.
- b) hamar urte.
- c) urtebete.
- d) hiru urte.

3.- Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, eraikuntza-prozesuko agente hauek sinatutako obra amaierako ziurtagiria erantsi beharko zaio obra-harreraren egintzari:

- a) obraren sustatzailea eta zuzendaria.
- b) obra-zuzendaria eta obra egikaritzearen zuzendaria.
- c) proiektugilea eta obra egikaritzearen zuzendaria.
- d) eraikitzailea eta obra egikaritzearen zuzendaria.

4.- Eraikuntza-obretako segurtasunaren eta osasunaren arloko gutxieneko xedapenak finkatzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, eta 4. artikularekin bat etorritik, sustatzailea behartuta egongo da —proiektua idazteko fasean— obra-proiektuetan segurtasun- eta osasun-azterlan bat eginaraztera, suposizio honetan:

- a) Proiektuaren barruko kontrata bidezko gauzatze-aurrekontua 75 milioi eurokoa edo hortik gorakoa izatea.
- b) Aurreikusitako iraupena 30 lanegunetik gorakoa izatea, eta unereren batean aldi berean 20 langile baino gehiago enplegatzea.
- c) Aurreikusitako esku-lanaren bolumena —obrako langile guztien lan-egunen batura— 900etik gorakoa izatea.
- d) Aire zabaleko erauzketa-industrietako obretan.

5.- Eraikuntza-obretako segurtasunaren eta osasunaren arloko gutxieneko xedapenak finkatzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, laneko segurtasun- eta osasun-koordinatzailearen betebeharra izango da, obra gauzatu bitartean, besteak beste:

- a) Segurtasun- eta osasun-planean ezarritakoa betetzea eta langileei betearaztea.
- b) Langile autonomoei informazioa ematea, baita jarraibide egokiak ere.
- c) Obretara baimendutako pertsonak bakarrik sartzerik izan dezaten beharrezko diren neurriak hartzea. Koordinatzaile bat izendatzea beharrezko ez denean, zuzendaritza fakultatiboak hartuko du bere gain zeregin hori.
- d) Uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuan xedatutakora egokitzen diren laneko ekipamenduak erabiltzea.

6.- Eraikuntza-obretako segurtasunaren eta osasunaren arloko gutxieneko xedapenak finkatzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 7. artikuluan aipatzen den laneko segurtasun- eta osasun-plana, honako honek onetsi behar du, obra hasi aurretik:

- a) Sustatzaileak.
- b) Kontratatistak.
- c) Segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak, obra gauzatu bitartean, edo, administrazio publikoen obren kasuan, obra esleitu duen administrazio publikoari helarazi beharko zaio, onetsi dezan.
- d) Segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak, obra-proiektu landu bitartean.

7.- Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren III. eranskinean —Eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoak— ezarrita dago eskailerak diseinatu eta trazatzean...

- a) eskailera-maila isolatuak eraiki ahal izango direla.
- b) eskailerak kontramailez hornituta egongo direla eta ez dutela bozelik izango.
- c) eskailerapeko gutxieneko igarotze-altuera librea 2,00 m-koa izango dela.
- d) eskailera-mailen gainjartzeak eta maila konpentsatuak baimentzen direla.

8.- Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren arabera, deitzeko kanpoko sakagailuen ondoan eta igogailuaren kabinan sartzeko ateen aurrean kokatutako sarbide-plataformen gutxieneko dimentsioak hauek izango dira:

- a) oztoporik gabeko 1,50 m-ko diametroko zirkulu bat egiteko modukoak.
- b) oztoporik gabeko 1,80 m-ko (eraikinetan, oro har) eta 1,50 m-ko (etxebizitza-eraikinetan) diametroko zirkulu bat egiteko modukoak.
- c) 1,50 m x 1,50 m-ko lauki bat egiteko modukoak.
- d) oztoporik gabeko 1,20 m-ko diametroko zirkulu bat egiteko modukoak.

9.- Aurreko galderan aipatutako 68/2000 Dekretuaren arabera, baldin eta V. eranskineko 3.2. artikuluan adierazten diren elementu erabilgarrietakoren bat ezin bazaie egokitu eranskin horretan zehazten diren gutxieneko baldintzei, zirkunstantzia hori dokumentu bidez justifikatu beharko da, eta nahitaezkoa izango da, lizentzia onartu aurretik,...

- a) Irisgarritasunerako Euskal Kontseiluak aldeko txostena egitea.
- b) Udaleko legelari nagusiak txostena egitea, V. eranskineko erabilgarritasun-irizpideak betetzeko ezintasunaren justifikazio teknikoaren gainean.
- c) udal-zerbitzuek alderdi horiei buruzko txostena egitea, eta Irisgarritasunerako Euskal Kontseiluari dosierra igortzea, jakinaren gainean egon dadin.
- d) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak txostena egitea.

10.- Eraikingintzaren Kode Teknikoko SI oinarrizko dokumentuaren —*Segurtasuna, suterik gertatuz gero*— SI-A eranskinaren arabera, zein erabilera dagokio apartamentu turistikoak hartzeko erakin bati?

- a) Bizitegi-erabilera publikoa.
- b) Bizitegi-erabilera, etxebizitza.
- c) Konkurrentzia publikoaren erabilera.
- d) Aurrekoetako bat ere ez da egiazko.

11.- Eraikingintzaren Kode Teknikoko SI oinarrizko dokumentuaren —*Segurtasuna, suterik gertatuz gero*— SI-A eranskinaren arabera —*Terminologia*—, bereziki babestutako eskailera baten esparruan, izan al daiteke instalazioetarako hodian erregistro-taparik?

- a) Ez, eskailera babestuen esparruetan bakarrik jar daitezke.
- b) Bai, baldin eta esparruak kearen kontrako babes badu, aireztapen naturalaren bidez.
- c) Bai, baldin eta tapak EI 60 badira.
- d) Bai, baldin eta eskaileraren esparruak gehienez bi sarbide baditu solairu bakoitzean, zein EI₂ 60-C5 ateen bitartez egingo baitira, eta zirkulazio-espazio komunetatik eta okupazio propiorik gabe.

12.- Eraikingintzaren Kode Teknikoko SI oinarrizko dokumentuaren arabera —*Segurtasuna, suterik gertatuz gero*—, administrazio-erabilera duen eraikin batean, edozein sute-sektorearen azalera eraikia ezingo da izan honetatik gorakoa:

- a) 10.000 m².
- b) 4.000 m², eraikinak solairu bat baino gehiago badu.
- c) Solairu bakarra badu, ez da beharrezkoa sute-sektoretan banatuta egotea.
- d) 2500 m².

13.- Eraikingintzaren Kode Teknikoko SI oinarrizko dokumentua —*Segurtasuna, suterik gertatuz, gero*— aplikatzeko irizpide orokorretan, honela dago ezarrita:

- Erabilerari eusten zaion eraberritze-obretan, oinarrizko dokumentu hau eraikin osoari aplikatu behar zaio, baldin eta horrek oinarrizko dokumentu honetan ezarritako segurtasun-baldintzetara hobeto egokitzea ekarriko badu.
- Izaera anbulatorioko erabilera sanitario edo asistentzialeko eraikin, establezimendu eta zonei administrazio-erabileraren baldintza partikularrak aplikatu behar zaizkie.
- Okupatzaile gehienek, eraikina ebakutzeko, laguntza behar duten eraikinei, establezimenduei edo horien zonei bizitegi-erabilera publikoaren berariazko baldintzak aplikatu behar zaizkie.
- Edozein kasutan, aurretik zeuden segurtasun-baldintzak urritu ahal izango dituzte eraberritze-obrek, oinarrizko arau honetan jasutzen direnak bezain estuak ez badira.

14.- Eraikingintzaren Kode Teknikoko SI oinarrizko dokumentuaren arabera, bizitegi-erabilera —*etxebizitza*— duen eraikin batean, ebakuazio-altuera 28 m-tik gorakoa bada:

- babestu gabeko beherako ebakuazio-eskailera bat jarri ahal izango da.
- beherako ebakuazio-eskailera babestua izan ahalko da.
- beherako ebakuazio-eskailerak bereziki babestua izan beharko du.
- 14 m-ko altueratik aurrera bakarrik izan beharko du babestua beherako ebakuazio-eskailerak.

15.- Eraikingintzaren Kode Teknikoko SI oinarrizko dokumentuaren arabera, ebakuazio-noranzkoan irekiko da irteera-ate oro:

- Kokatuta dagoen esparru edo espazioko 50 okupatzaile baino gehiagorentzat aurreikusia badago.
- 200 pertsona baino gehiago igarotzeko aurreikusia badago, konkurrentzia publikoaren erabilera duten eraikinetan.
- Kokatuta dagoen esparru edo espazioko 100 okupatzaile baino gehiagorentzat aurreikusia badago.
- Batere okupaziorik gabeko esparruetan.

16.- Eraikingintzaren Kode Teknikoko SUA oinarrizko dokumentuaren A eranskinaren arabera —*Terminologia*—, bi ate angeluan dituen igogailu irisgarri baten kabinaren gutxieneko dimentsioak —zabalera eta sakonera (m)— hauek izango dira:

- 1,40 x 1,40
- 1,10 x 1,40
- 1,20 x 1,40
- 1,00 x 1,25

17.- Eraikingintzaren Kode Teknikoko SUA oinarrizko dokumentuaren A eranskinaren arabera —*Terminologia*—, ibilbide irisgarri baten malda hau izango da:

- % 6koa edo gutxiagokoa, martxaren noranzkoan, edo arrapala irisgarriaren baldintzak betetzen ditu eta martxaren noranzkoaren zeharkako malda % 2koa edo hortik beherakoa da.
- % 4koa edo gutxiagokoa, martxaren noranzkoan, edo arrapala irisgarriaren baldintzak betetzen ditu eta martxaren noranzkoaren zeharkako malda % 2koa edo hortik beherakoa da.
- % 8koa edo gutxiagokoa.
- Ibilbide irisgarri batek ezin du maldarik izan.

18.- Eraikingintzaren Kode Teknikoko SUA oinarrizko dokumentuaren A eranskinaren arabera —*Terminologia*—, ez dira ibilbide irisgarri baten partetzat jotzen:

- Tornu gisako barrerak.
- Eskailerak, arrapalak eta korridore mekanikoak.
- Ate birakariak.
- Aurreko guztiak zuzenak dira.

19.- Eraikingintzaren Kode Teknikoko SUA 1 oinarrizko dokumentuaren arabera —*Erorketa arriskuari aurre egiteko segurtasuna*—, erabilera mugatuko eskaileretan:

- Tarte bakoitzaren zabalera 1,00 m-koa izango da, gutxienez.
- Tranpal zatikatuak jarri ahal izango dira, 45°ko mailekin, eta mailaririk gabeko mailak.
- Kontramaila gehienez 22 cm-koa izango da, eta maila 20 cm-koa, gutxienez.
- Alde irekietan barandarikgabeak izan ahalko dira.

20.- Kode Teknikoko SUA 4 oinarrizko dokumentuaren arabera —*Argiztapen ezegokiak eragindako arriskuari aurre egiteko segurtasuna*—, larrialdiko argiztapena izango dute:

- a) Ibilbide irisgarriek.
- b) Solairuko komuna orokorrek, irakaskuntza-erabilerako eraikinetan.
- c) 50 pertsonatik gorako okupazioa duen esparru orok.
- d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

21.- Kode Teknikoko SUA 9 oinarrizko dokumentuaren arabera —*Irisgarritasuna*—, nahitaez bete beharreko lege-xedapenen batek komunak edo aldagelak galdatzen dituelarik, hau izango da gutxienez:

- a) Komuna irisgarri bat sexu bakoitzeko.
- b) Aldagela bakoitzean, aldagela-kabina irisgarri bat, sexu bakoitzeko.
- c) Komuna irisgarri bat instalatutako 10 komun-ontziko edo zatiko —bi sexuetakoez partekatzea izan ahalko da—.
- d) Lehenengo bi aukerak, a) eta b), zuzenak dira

22.- Kode Teknikoko HE1 oinarrizko dokumentuaren arabera —*Energia-eskariaren mugapena*—, hauetan aplikatzea da atal hori:

- a) Lehendik dauden eraikinak eraberritzea, mantentze-lanak egiteko.
- b) Eraikuntza berriko eraikinak.
- c) Lehendik dauden eraikinetan esku-hartzea, azalera edo bolumen eraikia handitu gabe.
- d) Lehendik dauden eraikinetan esku-hartzea, erabilerari eutsiz.

23.- Kode Teknikoko HE1 oinarrizko dokumentuaren arabera, atal horretan ezartzen den energia-eskariaren mugapenaren oinarrizko eskakizuna betetzen dela justifikatzeko, informazio hau jaso behar dute proiektuko dokumentuek:

- a) Oinarrizko dokumentuaren sekzio horretako 2. atalean kuantifikatutako eskakizunak egiaztatze prozedura.
- b) Energia-eskaria kalkulatzeko prozedura, eskakizuna egiaztatze erabili dena.
- c) Eraikina kokatuta dagoen herriaren zona klimatikoaren definizioa.
- d) b) eta c) aukerak zuzenak dira.

24.- Kode Teknikoko HE1 oinarrizko dokumentuaren A eranskinaren arabera —*Terminologia*—, Trombe horma bat hau da:

- a) Atxikitako negutegi bat eta eraikinaren barruko zonak bereizten dituen fatxadako elementu bat.
- b) Eguzki-energia kanpoko aireztapen-areala alde aurretik berotzeko aprobetxatzen duen itxitura bat.
- c) Eraikinaren barruko airearen berzirkulazioaren bitartez eguzki-energia berotzeko aprobetxatzen duen itxitura bat.
- d) Aurrekoetako bat ere ez da egiazko.

25.- Kode Teknikoko HS1 oinarrizko dokumentuaren arabera —*Hezetasunaren kontrako babesa*—, estalkiak gauzatzeko obretan, eta iragazgaizte-baldintzei dagokienez:

- a) Inguruneko baldintzetan bakarrik aplikatuko dira laminak, 10°-tik gorako tenperaturekin.
- b) Malda gehien duen lerroaren noranzkoan jarri behar da iragazgaiztea.
- c) Iragazgaiztearen geruza desberdinak noranzko diferentean jarri behar dira, eta isurkietara.
- d) Lanak eteten direlarik, behar bezala babestu behar dira materialak.

26.- Kode Teknikoko HS3 oinarrizko dokumentuaren —*Barruko airearen kalitatea*— aplikazio-esparruaren arabera, hauei aplikatu behar zaie atal hori:

- a) Merkataritza-erabilera duten lokalak.
- b) Hotelak ez diren ostalaritza-establezimenduak.
- c) Aparkalekuak eta garajeak etxebizitza-eraikinetan.
- d) Administrazio-erabilerako lokalak bulego-eraikinetan.

27.- Kode Teknikoko HS4 oinarrizko dokumentuaren arabera —*Ur-hornikuntza*—, eta edateko uraren instalazioetan erabiliko diren eraikuntza-produktuei gagozkielarik:

- a) Ezingo zaizkio altzairu galvanizatuari lotu altzairu herdoilgaitzeko elementuak.
- b) Altzairu galvanizatuzko hodiak direla eta, ez da ezartzen garraiatu beharreko ur-mugen inguruko baldintzarik.
- c) Ur bero sanitarioa ekoizteko kobrezko aparatuak instalatu ahal izango dira, altzairuzko kanalizazioak baino lehen.
- d) Altzairu galvanizatuzko eta kobrezko hodian bateraezintasuna ekidingo da beti, uraren oldarkortasuna kontrolatuz.

28.- Legean jasotako arrazoi orokorrez gain, obra-kontratua bertan behera uzteko kausa da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera:

- a) Administrazioak obrak sei hilabetetik gorako eperako etetea.
- b) Administrazioak obren hasiera lau hilabetetik gorako eperako etetea.
- c) Zuinketaren egiaztapenaren akta hilabeteko epearen barruan sinatzea, kontratuaren datatik.
- d) Legearen 223. artikuluan ezarritako arrazoi orokorrak bakarrik dira obra-kontratua bertan behera uzteko kausa.

29.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, behin berme-aldia igarotzen delarik, kontratistak erantzukizuna izango du baldin eta zimendu, euskarri, habe, forjatu, karga-horma edo bestelako egitura-elementuen akatsen ondorioz, hau da, eraikuntzari zuzenean erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna ematen dizkioten elementuen akatsen ondorioz obran kalte materialik gertatzen bada:

- a) hamabost urtez, obra onartzen denetik.
- b) hamabost urtez, obra eragozpenik gabe onartzen den edo eragozpenak konpontzen diren egunetik.
- c) hamar urtez, obra eragozpenik gabe onartzen den edo eragozpenak konpontzen diren egunetik.
- d) hamar urtez, obra onartzen den egunetik.

30.-Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 232. artikuluan ezarritako obren sailkapenaren arabera, ondasun higiezin batean ustekabeen edo halabeharrez sortutako kalteak konpontzeko beharrezkoak diren obrak, funtsean egitura euskarriari eragiten badiete, honelakotzat joko dira:

- a) Zaharberritze-obrak.
- b) Birgaitze-obrak.
- c) Konponketa errazeko obrak.
- d) Konponketa handiko obrak.

31.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, zerbitzu-kontratu baten hasiera etenda uzten bada, kontratazio-organoari egotz dakiokkeen arrazoi batengatik, lau hilabetetik gorako epe baterako, bertan zerbitzua hasteko adierazitako egunetik kontatuta, kalte-ordain hau jasotzeko eskubidea izango du kontratistak:

- a) Kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 3, BEZik gabe.
- b) Kontratua eteteak ez dio inongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik emango kontratistari.
- c) Kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 6, BEZik gabe.
- d) Kontratazio-organoak kontratua etetea zerbitzua ematen hasi ondoren erabakitzen badu bakarrik izango du kalte-ordaina jasotzeko eskubidea.

32.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 307. artikulua arabera, behin hornidura ematen hasita horniduran atzera egiten delako suntsiarazten bada hornidura-kontratu bat:

- a) Kontzeptu guztiengatik, kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 6 —BEZik gabe— jasotzeko eskubidea baino ez du izango kontratistak.
- b) Kontzeptu guztiengatik, kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 3 —BEZik gabe— jasotzeko eskubidea baino ez du izango kontratistak.
- c) Kontratistak eskubidea izango du, kontzeptu guztiengatik, kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 6 jasotzeko, BEZik gabe, egin ez diren hornidurengatik, mozkin industrial gisa.
- d) Kontratistak eskubidea izango du, kontzeptu guztiengatik, kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 3 jasotzeko, BEZik gabe, egin ez diren hornidurengatik, mozkin industrial gisa.

33.- Arazoaren 8ko 2291/1985 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Igogailuen eta manutentzio-aparatuen araudiaren "Igogailuak" AEM 1 jarraibide tekniko osagarria onetsi zeneko otsailaren 8ko 88/2013 Errege Dekretuaren arabera, jarraibide horretan aipatzen diren igogailuak zerbitzuan jartzeko:

- a) Industria eta Energia Ministerioaren aldez aurreko aldeko txostena beharko da.
- b) Administrazio eskudunaren aldez aurreko baimena beharko da.
- c) Autonomia-erkidegoko organo eskudunari komunikatu beharko zaizkio instalazioaren fitxa teknikoa, CE adostasun-adierazpena, kontserbazio-kontratuaren kopia eta, aplikagarri izanez gero, bukaerako kontrolarekin zerikusia duten entseguen aktak.
- d) Autonomia-erkidegoko organo eskudunak galdatuko du aurreko komunikazio hori norberak egin dezala.

34.- Aurreko galderan aipatutako "Igogailuak" AEM 1 jarraibide tekniko osagarriaren arabera, Makinak merkaturatu eta zerbitzuan jartzeko arauak ezartzen direneko urriaren 10eko 1644/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa hauei aplikatzen zaie:

- a) Objektuak bakarrik garraiatzen dituzten igogailuak.
- b) 0,15 m/s-tik gorako abiadura ez duten igogailuak.
- c) 0,15 m/s-tik gorako abiadura duten igogailuak.
- d) Edozein igogailu, edozein abiaduratan mugitzen delarik ere.

35.- Behe tentsiorako araudi elektroteknikoko BT-12 "Lotura-instalazioak. Eskemak" jarraibide tekniko osagarriaren arabera, hauei deitzen zaie 'lotura-instalazio':

- a) Babes-kutxa orokorrak barruko instalazioekin edo erabiltzaileak jasotzen dituenekin lotzen dituztenak.
- b) Potentzia kontrolatzeko etengailuaren kutxa kontagailuarekin lotzen dutenak bakarrik.
- c) Hartunearen bitartez banaketa-sarea babes-kutxa orokorrarekin lotzen dutenak.
- d) Banako kontagailuak aginte- eta babes-gailu orokorrekin lotzen dituztenak.

36.- Suteetatik babesteko instalazioen araudia onetsi zeneko maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuaren I. eranskinaren arabera, suteen kontrako babes aktiboko ekipo eta sistemak dira:

- a) Suteen kontrako ur-hartuneeen sistemak.
- b) Aerosol ionizatzaileen bitartez itzaltzeko sistema finkoak.
- c) Manta termikoak.
- d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

37.- Suteetatik babesteko instalazioen araudia onetsi zeneko maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuaren arabera, alarma-sakagailuak:

- a) Gailuaren goiko alde 80 cm-tik 120 cm-ra bitarteko tartean geratzen dela jartzen dira.
- b) Halako moduan jartzen dira non, ebakuazio-jatorritzat jo beharreko edozein lekutatik ez den gainditu behar 50 m-ko distantzia, etengailu batera iritsi ahal izateko.
- c) Gailuaren goiko alde 90 cm-tik 150 cm-ra bitarteko tartean geratzeko moduan jartzen dira.
- d) Ez da beharrezko seinaleztatuta egotea, araudiaren I. eranskinaren arabera.

38.- Suteetatik babesteko instalazioen araudia onetsi zeneko maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuaren arabera, ur-hartune ekipatuen (UHE) sistemei gagozkielarik:

- a) UHEak, beti ere, gehienez 25 m-ko distantziara jarri behar dira sute-sektorearen irteeretatik, ebakuazio-ibilbide batean neurtuta, hura erabiltzeko enbarazurik egin gabe.
- b) UHE bakoitzaren inguruan oztoporik gabeko zona bat mantendu beharko da, aukera izan dadin bertara iritsi eta hura zailtasunik gabe erabiltzeko.
- c) Mahuka laua, mahuka zurruna edo mahuka erdi zurruna izan dezakete UHEk
- d) Erabilera errazteko, mahuka laua duten UHEen mahukaren gehieneko luzera 50 m-koa izango da.

39.- Legionelosiaren prebentziorako eta kontrolerako irizpide higieniko-sanitarioak finkatu zireneko uztailaren 4ko 865/2003 Errege Dekretuan xedatutakoari dagokionez, hauek dira Legionella ugaltu eta sakabanatzeko probabilitate gehien dagoen instalazioak:

- a) Suteen kontrako ur-sistemak.
- b) Aire zabalera aerosolizatuz hozteko elementuak.
- c) Hozte-dorreak eta lurruntze-kondentsadoreak.
- d) Iturri apaingarriak.

40.- Legionelosiaren prebentziorako eta kontrolerako irizpide higieniko-sanitarioak finkatu zireneko uztailaren 4ko 865/2003 Errege Dekretuak honako hau ezartzen du hozte-dorre eta sistema analogoetako prebentzio-neurrien artean:

- a) Ur hotzaren zirkuituko ura 20 °C-tik beherako tenperaturan mantendu beharko dute.
- b) Biozidaren etengabeko dosifikatze-sistemak eduki beharko dituzte.
- c) Zirkuitu hidraulikoa eratzen duten materialak fibrozementuzkoak edo hormigoizkoak izan ahalko dira.
- d) Hozte-dorreak ez dira gaixotasuna zabaltzeko arriskua dakarten instalazioak.

41.- Igerilekuen irizpide tekniko-sanitarioak finkatu zireneko irailaren 7ko 742/2013 Errege Dekretua ez da aplikagarri hauetan:

- a) Familia bakarren igerilekuak.
- b) Igerileku naturalak.
- c) Jabeen komunitate, landetxe eta landa-turismoko igerilekuak.
- d) Zentro sanitarioetako igerilekuak.

42.- Igerilekuen irizpide tekniko-sanitarioak finkatu zireneko irailaren 7ko 742/2013 Errege Dekretuaren arabera, hauek dira I. eta II. eranskinetan finkatutako parametroak kontrolatzeko igerilekuaren titularrak ontzi bakoitzean egin beharreko kontrolak:

- a) Hasierako kontrola eta urteko kontrol aleatorioa.
- b) Hasierako kontrola, errutinazko kontrola eta kontrol periodikoa.
- c) Hasierako kontrola eta bukaerako kontrola.
- d) Errege-dekretuak ez du uren kalitate-kontrolari buruzko gutxienezko finkatzen.

43.- Egiturarako hormigoitari buruzko EHE-08 jarraibidearen arabera, zer da armadura aurretenkatuak destenkatzea?:

- a) Hasierako tenkatzeaz geroztik tendoi baten gainean egindako edozein aurretenkatze-eragiketa.
- b) Tendoiaren injekzio-prozesua, aurretenkatze-altzairuaren korrosioa ekidin eta hormigoia eta altzairuaren arteko itsaspen efikaza emateko.
- c) Armaduren tenkatze-esfortzua hormigoira transmititzen deneko eragiketa, zein kanpoko behin-behineko ainguraketetatik askatuz egiten baita.
- d) Aurrekoetako bat ere ez da egiazko.

44.- Egiturarako hormigoitari buruzko EHE-08 jarraibidearen arabera, eguraldi hotzarekin hormigoia obran jartzeari dagokionez:

- a) Debeztatuta dago zero gradu zentigradutik beherako tenperatu duten elementuen gainera botatzea hormigoia.
- b) Galarazita dago hormigoia gogortzea azkartzen duten aditiboak erabiltzea.
- c) Hormigoia-masaren tenperatura, kofratura botatzeko unean, ezin da izan 10 °C-tik beherakoa.
- d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

45.- Egiturarako hormigoitari buruzko EHE-08 jarraibidearen arabera, soliba eta lauza zulodunei zurkaintzak kentzeko:

- a) Hormigoia botatzen denetik 5 egun igarotzen direlarik kendu edo atera ahal izango dira zurkaintzak.
- b) Baoaren erditik hasi eta muturretara kenduko dira zurkaintzak.
- c) Hegalen kasuan, abialekutik hasi eta hegal-ertzera kenduko dira zurkaintzak.
- d) Bat-batean eta zuzendaritza fakultatiboaren baimenik gabe kenduko dira zurkaintzak.

46.- Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Errege Dekretuaren arabera, hirigintza-lizentziak eskuratzeko baldintza gisa, berme bat eratzea eskatuko dute udalek, hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko. Hau izango da bermearen zenbatekoa:

- a) Hondakinen kudeaketaren kostuaren % 120.
- b) Hondakinen kudeaketaren kostuaren % 30, baldin eta obra gauzatzean hondakin gutxiago sortzen dituzten materialak erabiltzen badira, edo eraikingintza iraunkorra bada.
- c) Hondakinen kudeaketaren kostuaren % 100.
- d) Dekretuak ez du ezartzen bermearen zenbatekoa kalkulatzeko sistemarik.

47.- Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Errege Dekretuaren arabera, Europako Erkidegoko ingurumen kudeaketa- eta ikuskaritza-sistemara (EMAS) atxikitako organizazioen erregistroan izena emanda daudenek:

- a) Eraiste-obretan bakarrik jarri beharko dute bermea.
- b) Obraren zuzendaritza fakultatiboak sinatutako txostena aurkeztu beharko dute, ingurumen-organoak akreditatutako entitate independente batek egiaztatua.
- c) % 50eko hobaria izango dute eska daitekeen bermearen kalkuluan.
- d) Aurreko galderan aipatutako bermea jartzetik salbuetsita egongo dira.

48.- Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Errege Dekretuaren I. eranskinaren arabera, hondakinak kudeatzeko azterlanak hauek jasoko ditu:

- Proiektuaren helburu den obran hondakinen prebentzioa egiteko neurriak.
- Obran sortuko diren hondakinei balioa eman edo deuseztatzeke eragiketak.
- Sortuko diren hondakin arriskutsuen inbentarioa.
- Aurreko guztiak zuzenak dira.

49.- Eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duen urriaren 28ko 209/2014 Dekretuaren arabera:

- Kalitatea Kontrolatzeko Planak ez du eduki behar gutxieneko eduki espezifiko bat.
- Egikaritze-proiektuak Kalitatea Kontrolatzeko Plana izeneko eranskina eraman beharko du nahitaez.
- Proiektuaren egile den arkitektoak idatziko du Kalitatea Kontrolatzeko Plana.
- Kalitatea Kontrolatzeko Planaren balioespina ez da sartu behar proiektuaren aurrekontu zehatzaren barruan.

50.- Eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duen urriaren 28ko 209/2014 Dekretuan aipatzen den Kalitate Kontroleko Liburua:

- Obra-zuzendaritzak egingo du, obrako azken ziurtagiria izenpetu ondoren.
- Egindako kontrolen laginketa aleatorio eta ez erabatekoa jaso beharko du.
- Obra egikaritzeko zuzendaritzak egingo du, obra egiten den bitartean.
- Obrak hastean aurkeztu beharko du obraren eraikitzaile orokorrak.

51.- Eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duen urriaren 28ko 209/2014 Dekretuan aurreikusten da eraikingintzaren eta eraikuntza-kalitatearen alorreko eskumena duen sailak honako hauek ezarri ahal izango dituela:

- Bikaintasun-zigiluak, horretarako deitzen diren urteko lehiaketen irabazle suertatzen diren eraikuntzentzat.
- Eraikuntzen profil edo kalitate-mailak, nahi izanez gero aplikatzeko.
- Eraikuntzako material, produktu edo elementuen borondatezko kalitate-bereizgarriak eta marka edo zigiluak.
- Puntu-sistemak, zeinen bitartez puntuak eman edo kenduko baitzaizkie enpresei, aldian aldiko ebaluazioetan lortzen dituzten kalifikazioen arabera.

52.- Kode Teknikoko SE-F oinarrizko dokumentuaren arabera —*Segurtasun estrukturala, Fabrika*—, bi orri paralelok osatutako horma bat —modu efikazean lotuak, giltzekin edo horma-harizko armadurekin, ahalegin moztailea transmititzeko gaitasunik gabe—, orri bat edo biak karga bertikalak jasaten dituztelarik:

- bistako aldea duen horma da.
- horma kaputxinoa da.
- horma bikoiztua da.
- horma-harizko horma hutsa da.

53.- Kode Teknikoko SE-F oinarrizko dokumentuaren arabera —*Segurtasun estrukturala, Fabrika*—, zer da fabrika konfinatu bat?:

- Bi alde bertikaletan hormigoizko habeek mugatzen duten fabrika.
- Espetxe baten kanpoaldeko itxitura-horma.
- Tendoiak tenkatuz konpresio-tentsioak nahita sortu diren fabrika bat.
- Lau aldeetan hormigoizko armatuzko edo fabrika armatuzko zutabe eta habeek (ez flexioari erresistente diren portiko gisa lan egiteko proiektatuak) inguratutako fabrika.

54.- Kode Teknikoko SE-M oinarrizko dokumentuaren arabera —*Segurtasun estrukturala, Egurra*—, ur gezatan eraikitako zurezko kai baten egitura mota honetakoa da:

2. erabilerako mota.
3. erabilerako mota.
4. erabilerako mota.
- Aurrekoetako bat ere ez.

55.- Kode Teknikoko SE-M oinarrizko dokumentuaren arabera —*Segurtasun estrukturala, Egurra*—, makal zerratuzko zur bat, flexioarekiko 40 N/mm^2 -ko erresistentzia bereizgarria duena, mota erresistente honi esleituko zaio:

- GL40c.
- C40.
- D40.
- Makal-zura ezin da baliatu erabilera estrukturalerako.

56.- Kode Teknikoko SE-M oinarrizko dokumentuaren arabera —*Segurtasun estrukturala, Egurra*—, zur zerratuzko produktuak obrara iristean, hezetasun-edukia egiaztatu beharko da, eta kontrakorik zehaztu ezean, honelakoa izan beharko du:

- a) = % 20
- b) > % 20
- c) < % 20
- d) ≤ % 20

57.- Kode Teknikoko SE-A oinarrizko dokumentuaren arabera —*Segurtasun estrukturala, Altzairua*—, torlojuz jositako loturetan, torlojuen gutxieneko diametro nominala hau izan behar da:

- a) 12 mm.
- b) 12 mm, salbu eta proiektuan besterik zehazten bada.
- c) 20 mm.
- d) 12 mm, torlojuak posizio bertikalean jartzen direlarik.

58.- Kode Teknikoko SE-A oinarrizko dokumentuaren arabera —*Segurtasun estrukturala, Altzairua*—, gomendatzen da giro normaletan kokatutako eta oinarrizko dokumentu honetako eta SI oinarrizko dokumentuko aginduen arabera egindako eraikuntza-egitura metaliko konbentzionalen ikuskapenak gutxienez:

- a) 10 urtean behin egitea.
- b) 15 urtean behin egitea.
- c) 10 urtean behin egitea, lehenengoaren kasuan izan ezik, epe luzeagoan egin ahal izango baita.
- d) 20 urtean behin egitea.

59.- Kode Teknikoko SE-A oinarrizko dokumentuaren arabera —*Segurtasun estrukturala, Altzairua*—, honela definitzen da f_{yd} erresistentzia-kalkulua:

- a) Haustura-tentsioaren eta materialaren segurtasun-koefizientearen arteko zatidura.
- b) Muga elastikoaren tentsioaren eta materialaren segurtasun-koefizientearen arteko zatidura.
- c) Muga elastikoaren tentsioaren balioa.
- d) Materialaren azken erresistentziaren eta materialaren segurtasun-koefizientearen arteko zatidura.

60.- Eraikinen energia-eraginkortasuna ziurtatzeko oinarrizko prozedura onetsi zeneko apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuaren esparrutik kanpo geratzen dira:

- a) Edozein babes-erregimenen menpe dauden eraikinak, edozein jardueratarako.
- b) Behin behineko eraikuntzak, lau urteko edo hortik beherako erabilera-epea aurreikusia dutelarik.
- c) Kultu-leku gisa eta erlijio-jardueretarako bakarrik erabiltzen diren eraikinak edo eraikin-zatiak.
- d) Eraikin edo eraikin-zati isolatuak, guztira 100 m²-tik beherako azalera erabilgarria dutenak.

61.- Eraikinen energia-eraginkortasuna ziurtatzeko oinarrizko prozedura onetsi zeneko apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuan definituta dagoenez, teknikari eskudunak ziurtatze-prozesuaren emaitza gisa izenpetzen duen dokumentazioa, zeinek biltzen baitu gauzatze-proiektuaren ezaugarri energetikoei eta energia-eraginkortasunaren kalifikazioari buruzko informazioa, hau da:

- a) Bukatutako eraikinaren energia-eraginkortasunaren ziurtagiria.
- b) Lehendik dagoen eraikinaren energia-eraginkortasunaren ziurtagiria.
- c) Eraikinaren ingurutzalearen energia-eraginkortasunaren ziurtagiria.
- d) Proiektuaren energia-eraginkortasunaren ziurtagiria.

62.- Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onetsi zeneko urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, eraikigarritasuna eta erabilera edo hirigintza-erabilera berezia bakarrik esleitu zaion lurzoru-unitatea, hala sestran nola hegalkinean edo lurpean dagoena, honela deitzen da:

- a) Funtsa.
- b) Erregistro-funtsa.
- c) Partzela.
- d) Erregistro-partzela.

63.- Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategina onetsi zeneko urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren ondorioetarako, landa-lurzoruaren egoeran dauden lursailen balorazioan:

- a) Ez dira tasatuko lehendik zeuden plantazioak eta ereintzak, ezta landa-errentamenduen edo bestelako eskubideen ondoriozko kalte-ordainak ere.
- b) Eraikin, eraikuntza eta instalazioak, lurzorutik bereiz baloratu behar direlarik, hondar-metodo estatikoaren bitartez tasatuko dira, beren egoeraren eta antzinasunaren arabera.
- c) Lurralde- edo hirigintza-antolamenduak esleitutako eraikigarritasun eta erabilerek sortutako itzarokizunak baloratuko dira, artean horiek guztiz gauzatu gabe badaude ere.
- d) Ustiapenaren urteko errenta erreal edo potentziala —bietan handiena— kapitalizatuz tasatuko dira lursailak, balorazioa zein momenturi dagokion, orduan duten egoeraren arabera.

64.- Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategina onetsi zeneko urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren ondorioetarako, lurzoru oro oinarritzko egoera hauetakoren batean dago:

- a) Landa-lurzorua edo lurzoru urbanizatua.
- b) Nekazaritza-lurzorua edo hiri-lurzorua.
- c) Landa-lurzorua edo lurzoru urbanizagarria.
- d) Lurzoru ez urbanizagarria edo hiri-lurzorua.

65.- Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategina onetsi zeneko urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, eraikitzen ari den obra berriaren deklarazioaren eskriturak baimentzeko, notarioek hau aurkeztea galdutako dute lekukotzarako:

- a) Lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren legeriaren arabera obrak behar duen administrazioaren adoste-, oneste- edo baimentze-egintza.
- b) Teknikari eskudun batek emandako ziurtagiria, obraren deskripzioa administrazio-egintza horri dagokion proiektuarekin bat datorrela egiaztatzen duena.
- c) a) eta b) aukerak zuzenak dira.
- d) Obra berri bukatuaren deklarazioaren eskriturak bakarrik baimendu ahal izango dituzte notarioek.

66.- Lurzoruaren Legearen Balioespen Erregelamendua onetsi zeneko urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretuaren arabera, sei lagin alderagarriren berdina edo handiagoa den kopurua biltzen duen transakzio erreal edo eskaintzen multzo estatistikoki esanguratsu bat badago, lurzoruaren eta eraikinaren baterako tasazioa honen bitartez egingo da:

- a) Lurzoru urbanizagarri eraiki gabea balioesteko metodoa.
- b) Araudiaren 22. artikuluan araututako hondar-metodoa.
- c) Hondar-metodoa, lurzoruari bakarrik aplikatuta, kontuan hartu gabe lehendik dagoen eraikina edo jada egindako eraikuntza.
- d) Merkatu-alderaketaren metodoa.

67.- Lurzoruaren Legearen Balioespen Erregelamendua onetsi zeneko urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretuaren arabera, balorazio-irizpide orokor bat hau da:

- a) Antolamendutik kanpo dauden eraikin eta eraikuntzen balorazioan, ez da haien balioa murriztuko.
- b) Lurzoruaren balioa haren jabari osoari dagokio, jabetza mugatzen duen karga, zama edo eskubide orotatik libre.
- c) Eraikin eta eraikuntzen balioespenak ez du kontuan izango haien antzinasuna eta kontserbazio-egoera.
- d) Bere egoeraren arabera tasatuko da lurzoru, eta balorazioaren kausaren eta eragin duen lege-tresnaren arabera.

68.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arabera (aurrerantzean LHL), udal-mugarte osoko lurzoruaren sailkapena jasoko du egiturazko hirigintza-antolamenduak, hauetan banaturik:

- a) hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarri programatua eta urbanizagarri programatu gabea.
- b) lurzoru urbanizagarri eta lurzoru urbanizaezina.
- c) hiri-lurzorua, urbanizagarria eta urbanizaezina.
- d) hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizaezina.

69.- LHLaren arabera, plan orokorrak edo dagokion sektorizatze-planak lurzoru urbanizagarrian mugatutako sektore baten antolamendu xehatua hauen bitartez ezartzen da:

- a) Plan partzialak.
- b) Hiri-berrikuntzako plan bereziak.
- c) Plangintza orokorreko bateragarritze-planak.
- d) Hiri-antolamenduko plan bereziak.

70.- LHLaren arabera, lurzorua hiri-lurzoru finkatu eta hiri-lurzoru finkatugabe gisa kategorizatzea honi dagokion zehaztapena da:

- a) Lurralde-antolamendua.
- b) Hirigintza-antolamendu xehatua.
- c) Egiturazko hirigintza-antolamendua.
- d) Udalerriaz gaindiko hirigintza-antolamendua.

71.- LHLaren arabera, lehentasunezko erabilera bizitegia duen lurzoru urbanizagarriko esparru bakoitzean, babes ofizialeko erregimenen bati atxikitako etxebizitzak eraikitzeko lursailak erreserbatu beharko ditu hirigintza-plangintzak, gutxienez hau gauzatzeko:

- a) Esparruko bizitegi-erabilerako hirigintza-eraikigarritasunaren gehikuntzaren % 55.
- b) Esparruko bizitegi-erabilerako hirigintza-eraikigarritasunaren gehikuntzaren % 75.
- c) Esparruko bizitegi-erabilerako hirigintza-eraikigarritasunaren gehikuntzaren % 40.
- d) Urbanizazioak finkatu gabeko hiri-lurzoruan bakarrik da nahitaezkoa erreserba hori.

72.- LHLaren arabera, lurzoru urbanizagarriaren antolamendu xehatuko eremua, zeinen antolamendu xehatua plan orokorraren bidez nahiz sektorizatze-planaren bidez egin baitaiteke, edo plan berezi batez egiteko utzi,...

- a) sektore bat da.
- b) area bat da.
- c) egikaritze-unitate bat da.
- d) zona bat da.

73.- LHLaren arabera, plan orokorreari behin betiko onespena emateko eskumena, 10.000 biztanletik gorako udalerrietan, hauei dagokie:

- a) Foru-aldundiak.
- b) Foru-aldundiak, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txostena egin ondoren.
- c) Eusko Jaurilaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.
- d) Udalak, Euskadiko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena egin ondoren.

74.- LHLaren arabera, xehetasun-azterketek ezingo dute, inola ere:

- a) Antolamendu xehatuak ezarritako lerroak zuzendu edo osatu.
- b) Bolumenak antolatu, dagokien plangintzaren aurreikuspenekin bat etorritik.
- c) Bide berriak egiteko lurzorua kalifikatu, bolumenen berrantolaketa tipologiko edo morfologikoaren ondorioz beharrezko bada.
- d) Hirigintza-eraikigarritasuna handitu.

75.- LHLak ezartzen du ezen, herri-erakundearen hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan erkidegoak parte har dezan, hiri-lurzoru finkatugabearen eta lurzoru urbanizagarriaren jabeek obligazio hau dutela:

- a) Modu eskusiboan eta doan lagatzea udalari egikaritze-esparruko sistema orokorretarako beharrezkoa den azalera.
- b) Doan lagatzea udalari egikaritze-esparruko eraikigarritasun fisikoaren % 15ari dagokion lurzorua, urbanizazio-kostuetatik libre.
- c) Doan lagatzea udalari egikaritze-esparruko eraikigarritasun haztatuaren % 15ari dagokion lurzorua, urbanizazio-kostuetatik libre.
- d) Doan lagatzea udalari egikaritze-esparruko lurzoru urbanizagarriaren salmenta-balio osoaren % 15aren pareko diru-zenbatekoa.

76.- LHLaren ondorioetarako, landa-gunea hau izango da:

- a) Lurzoru urbanizaezinean gutxienez bi baserri eratuak edozein gune isolatu.
- b) Seitik hogeita bostera arteko baserri-multzoa, izaera ematen dion eremu publiko baten inguruan bildua.
- c) Gehienez hogeita bost baserriko multzoa, eliza edo plaza baten inguruan bildua.
- d) Daudenak eta lurralde historiko bakoitzeko foru-aldundien inbentarioetan jasota daudenak.

77.- Lurzoru urbanizagarriaren barruan, honako bi kategoria hauetako bati atxikita geratu behar duten azalerak bereizten ditu LHLak:

- a) Landa-lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbanizagarri finkatu gabea.
- b) Lurzoru urbanizagarri programatua eta lurzoru urbanizagarri programatu gabea.
- c) Lurzoru urbanizagarri finkatua eta lurzoru urbanizagarri finkatu gabea.
- d) Lurzoru urbanizagarri sektorekatua eta lurzoru urbanizagarri sektorekatu gabea.

78.- LHLaren arabera, hirigintzako arau-haustea oso larria da:

- Plangintzak onartzen ez dituen sotoak, erdisotoak, teilatupeak edo solairuarteak eraikitzea, zeinahi delarik ere erabilera.
- Ondasunak suntsitzea, baldin eta ondasun horiek udalak katalogatu baditu, edo ondare historiko, kultural eta artistikoari buruzko legeriaren arabera interes kulturala izendatu bazaie.
- Antolamenduak baimentzen duen eraikigarritasun fisikoa kontuan hartuta, gehiegi eraikitzea. Eraikitako azalera eta eraikitako bolumena hartuko dira eraikigarritasuntzat.
- Ikuskatze-lana oztopatzea.

79.- LHLaren arabera, ez dago hirigintza-lizentzia eskatu beharrik honetarako:

- Obren edo obra-zatien lehenengo erabilpena eta obra horien aldaketa; baita eraikuntzaren erabilerak aldatzea ere —osorik edo zati batean—.
- Eraikuntzen eraispena; salbuespen izango dira erortzeko zorian dauden eraikintzat hartutakoak.
- Hiri-lurzoru finkatuan dauden zuhaitzak eta zuhaixkak moztea.
- Propagandako kartelak eta panelak bide publikotik ikusteko moduan jartzea, baldin eta kartel eta panel horiek egiturazko euskarria den elementu baten kontra edo gainean ipini badira.

80.- LHLaren arabera, obrak —lizentzian ezarritako epeak urratzen direlarik— hasi edo bukatu gabe badaude, edo etenda, sustatzaileari egotzi dakioken arrazoiren bategatik, Udalak...

- hirigintza-legezketasunari buruzko dosierra abiaraziko du, epeak bete ez direla eta.
- lizentziaren baliogabetasuna deklaratu du, eta eraikitakoa eraisteko aginduko.
- lizentziaren iraungipena deklaratu du, administrazio-prozedura izapidetu eta interesdunari entzunaldia eskaini ondoren.
- lizentzian aurreikusitako obra gauzatzeko epea etentzat joko du, administrazio-prozedura izapidetu eta interesdunari entzunaldia eskaini ondoren.

81.- Ondasun higiezinak eta eskubide batzuk finantza-xede jakinetarako balioesteko arauari buruzko martxoaren 27ko ECO/805/2003 Aginduaren arabera, amortizazio linealaren teknikaren bitartez eraikinaren balio-galera kalkulatzeko, bizitegi-erabilera duen higiezin baten bizitza baliagarri osoaren gehieneko balioespen hau egingo du tasatzaileak:

- 100 urte.
- 75 urte.
- 50 urte.
- 35 urte.

82.- Ondasun higiezinak eta eskubide batzuk finantza-xede jakinetarako balioesteko arauari buruzko martxoaren 27ko ECO/805/2003 Aginduan, balioesten den ondasun baten gaineko eskubide erreal edo mugapenen artean, ez dago sartuta honako hau:

- Administrazio-emakida.
- Zorra.
- Hipoteka.
- Azalera-eskubidea.

83.- Ondasun higiezinak eta eskubide jakin batzuk zenbait finantza-xedetarako balioesteko arauen martxoaren 27ko ECO/805/2003 Aginduaren ondorioetarako, balioespen-metodo tekniko hauek balia daitezke:

- Kostuaren metodoa, alderatze-metodoa eta hondar-metodoa.
- Kostuaren metodoa, alderatze-metodoa, errentak eguneratzeko metodoa eta hondar-metodoa.
- Kostuaren metodoa, alderatze-metodoa eta errentak eguneratzeko metodoa.
- Kostuaren metodoa, hondar-metodo estatikoa, hondar-metodo dinamikoa eta aldaratzea-metodoa.

84.- Nahitaezko desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen arabera, eta nahitaezko desjabetzearen aurretiko betebeharreri gagozkielarik:

- Ondasun higigarriak desjabetzeko ez da beharrezko izango, inolaz ere, Legearen bitartez onura publikoaren aitortpena egitea.
- Onura publikoa inplizituztat jotzen da, higiezinaren desjabetzeari dagokionez, Estatuaren, probintziaren eta udalerrriaren obra- eta zerbitzu-plan guztietan.
- Nahitaezko desjabetzea egin ahal izateko, ezinbestekoa izango da desjabetutako objektua atxikiko zaion xedearen onura publikoaren edo interes sozialaren alde aurreko aitortpena.
- b) eta c) aukerak zuzenak dira.

85.- Nahitaezko desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen arabera, eta balio justua zehazteari dagokionez:

- Administrazioak eta desjabetzea dagokion partikularrak haren objektu diren ondasun eta eskubideen erosketa hitzartu ahal izango dute libreki eta ados jartzen direlarik.
- Erosketa adiskidetsuaren terminoak hitzartzen direlarik, bukatutzat joko da hasitako dosierra.
- Baldin eta hilabeteko epean ez bada akordio bat lortzen, Legean ezarritako prozedura jarraituko da, nahiz eta gerora, tramitazioaren edozein unetan, bi aldeek akordio batera iristerik izango duten.
- Aurreko aukera guztiak zuzenak dira.

86.- Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (aurrerantzean HAPO) 5.01.17 artikulua arabera, azalera eraikigarriaren baturan hauek sartuko dira:

- Eraikinaren barneko patioak edo fatxadara irekiak.
- Ataripeak eta beheko solairu hutsak.
- Irtenguneak, hegalkinak eta behatoki itxiak.
- Igogailuen makineria-gelen eta gainerako instalazio komunitarioen azalerak.

87.- HAPOn bide publikoari eragiten dioten elementuetarako ezarritako baldintzen arabera, markesinak, beheko solairuetan:

- espaloien sestratik gutxienez 2,20 m-ko altueran eraikiko dira, punturik kaltegarrietik neurtuta, eta beheko solairuaren sabaiaren forjatua gainditu ahal izango dute.
- Gehieneko hegalkina eraikuntzako hegalkinetan baimendutako gehienekoa gehi 0,20 m izango da.
- Luzerak ez du gaindituko instalatzen direneko lokalaren aurrealdearen % 75.
- Nolanahi ere, 1,50 metroko gutxieneko atzeraemangunea errespetatuko da, espaloien zintarriaren kanpoko ertzetik neurtuta.

88.- HAPOko Eraikuntzari buruzko Arau Orokorren arabera, eskailerak diseinatzean, hau bete beharko da:

- Erabilera publikoko eskaileren zabalera gutxienez 0,80 m-koa izango da.
- Eskaileren zabalera uniformea izango da ibilbide osoan.
- Eskaileren altuera libre, beti ere, 2,00 m-tik gorakoa izango da.
- Argirik eta aireztapen naturalik gabeko erabilera publikoko eskailerak onartzen dira.

89.- HAPOko bizitegi-erabilerearen arau partikularren arabera, kanpoaldera jotzen duten etxebizitzat joko dira bizitzeko edozein gelaren fatxadako gutxienez 6 metroko luzeran baldintza hau betetzen dutenak:

- 15 metrotik gorako zabalera duen bide publiko batera baoak edukitzea.
- Kalera jotzen duen baorik ez eduki arren, argiztapen eta aireztapen naturala edukitzea, baldintza jakin batzuk betetzen dituen etxadi- edo lursail-patio baten bitartez.
- Bide publiko bati lotutako eraikinik gabeko espazio libre batera, zeinetan 50 m-ko zirkulu bat sartzen den, baoak edukitzea.
- Bide publiko batera jotzen duen aurrealdea duen atari batetik sarbidea izatea.

90.- HAPOko erabilera tertziarioaren arau partikularren arabera, zerbitzu sanitario hauek izango dituzte bulego-lokalek:

- 100 m² arte, komun bat, komunaurrearekin, baldin eta erabiltzaile potentzialak sexu berekoak badira —argi eta garbi zehaztuta geratu beharko du horrek aurkezten den dokumentazioan—.
- 50 eta 200 m² artekoak, bi komun, komunaurrearekin.
- 200 m²tik gora, lau komun, komunaurrearekin.
- Bulego-lokalei dagokionez ez da komun-hornidurarik zehazten.

91.- HAPOk barne hartzen dituen I. kategoriako erabilera tertziarioaren baldintza partikularren arabera, 100 m² eraikitik gorako azalera duten jarduerak gutxienez aurrealde hau izan beharko dute bide edo espazio publikotzat kalifikatutako erabilera publikoko lurretara:

- 3,20 m, gehi 0,40 m 25 m² eraikiko, edo hortik beherako zatiko.
- 3,20 m.
- 6,20 m.
- 6,20 m, gehi 0,40 m 25 m² eraikiko, edo hortik beherako zatiko.

92.- HAPOk barne hartzen dituen II. kategoriako industria-erabileraren baldintza partikularren arabera, egoera guztietan:

- Industria-eraikuntzak ez ditu errespetatu behar ingurune fisikoan, eraikitako inguruan eta paisaian integratzeko baldintza estetikoak.
- Oinarrizko jarduera garatzeko beharrezko diren erabilera osagarriak, bulegoen parekotzat jo daitezkeenak, gehienez, azalera eraikiaren % 35era mugatzen dira.
- Familia bakarreko eraikuntzen edo landaguneen inguruko eraikinetan, jardueraren gehieneko azalera (lantegiak eta biltegiak) 600 m²-koa izango da.
- Egoera guztietan, industria-jardueraren azalera 300 m²-koa baino handiagoa denean, zamalanak egiteko zona berezia ezarriko da, gutxienez azalera erabilgarri osoaren % 10ekoa.

93.- HAPOko aparkalekuen erabilera globalaren baldintza orokorren arabera, aparkaleku bakoitzak neurria hauek izan behar ditu, gutxienez:

- 2,20 x 4,50 m, elementu orotatik libre.
- 2,40 x 4,75 m, elementu orotatik libre, eta zirkulazio-kale edo maniobra-inguru baten mugakide izan beharko du.
- 2,50 x 4,85 m, elementu orotatik libre, eta zirkulazio-kale edo maniobra-inguru baten mugakide izan beharko du.
- 2,20 x 1,50 m, motorrentzako aparkalekuen kasuan.

94.- HAPOk barne hartzen dituen aparkaleku-erabileraren arau partikularren arabera, hau da planta berriko bizitegi-eraikinetan ibilgailuak gordetzeko ezarritako gehieneko aparkaleku-kopurua:

- Aparkaleku bat 100 m²-ko azalera erabilgarriko edo hortik beherako zatiko.
- 160 m²-tik beherako azalera erabilgarria duten familia bakarreko etxebizitzetan, hiru aparkaleku etxebizitza bakoitzeko.
- Etxebizitza kolektiboetan, lehenengo bi sotoetan sartzen direnak eta, horiekin gutxienekoa betetzen ez bada, hirugarren bat eraiki ahal izango da.
- Aparkaleku bat 70 m²-ko azalera erabilgarriko edo hortik beherako zatiko.

95.- HAPOaren arabera, eta OR-2 ordenantzaren aplikazio-eremuan, lursailaren gehieneko okupazio-portzentajea, etxebizitza-solairuan, hau izango da:

- Lerrokadura ofizialen barruan sartzen den lursailaren azaleraren % 75.
- Lursailaren azaleraren % 65, gehieneko sakonera gaintu ahal delarik.
- Lursailaren azaleraren % 65. Nolanahi ere, orobat bete beharko dira gehieneko sakoneraren baldintzak, eta lursailaren gutxieneko patioaren baldintzak bermatu.
- Ez da etxebizitza-solairuko gehieneko okupazio-portzentajerik zehazten, ordenantzan finkatutako gehieneko sakonera aplikatuz ateratzen dena izango baita.

96.- HAPOren arabera, OR-10 ordenantzaren aplikazio-eremuan eraiki daitezkeen eraikuntza-moten artean ez da sartzen:

- Familia bakarreko etxebizitzarako erabiltzeko eraikin bakartua (familia-gune bat).
- Baimendutako beste mota bateko erabilerarako eraikin bakartua.
- Bi familia-gune baino gehiagorentzako etxebizitza kolektibotarako planta berriko eraikina.
- Familia bakarreko etxebizitzaren erabilera duten eraikin atxikiak, argi eta bista-zorrik gabe bi mehelin edo gehiago dituztenak.

97.- HAPOren arabera, hau arautzen du OR-13 ordenantzak:

- OR-8 eta OR-9 ordenantzek eragiten dieten bizitegiarako lurzoruen mugakide diren hiri-inguruko industria-eremuak.
- OR-11 ordenantzak araututako lursailak, Betoñuko industrialdean kokatuta daudenak.
- Etxebizitzetarako ez diren hiri inguruko eraikinen eremuak, lehendik dauden autoentzako errepide nagusien edo proposatutakon ondoan daudenean.
- Jundizko zerbitzu-eremuaren esparruan kokatutako ekoizpen-erabilerako eta erabilera tertziarioko zonak.

98.- HAPOn arabera, egituraren kontserbazioari buruzko ordenantzaren menpeko eraikinetan, estalki azpian etxebizitzetarako aprobetxamendurik ez izan arren hori fisikoki posible delarik, onar al daiteke espazio horiek bizitegi-erabilerarako baliatzea?:

- a) Ez, baimendutako jatorrizko erabilerari eutsi behar zaio beti, espazio horietan.
- b) Bizitegi-erabilera onartuko da, baldin eta lehendik dagoen eraikinaren aprobetxamendua ordenantza aplikatuz ateratzen dena baino txikiagoa bada, eta Eraikuntzari buruzko Arauetan zehazten diren baldintza orokorrak betetzen direlarik.
- c) OR-8 ordenantzaren esparruko eraikinetan barrik onar daiteke.
- d) Onartuko da, baldin eta espazio horien argiztapena estalkien isurialdeetan jarritako leiho inklinatuen bitartez egiten bada, eta inolaz ere ez mandioen bitartez.

99.- HAPOn arabera, Birgaitzeari eta Berritzeari buruzko Ordenantzaren menpeko eta fatxada mantendu beharrekoak diren eraikinetan:

- a) Aukera izango da erabat berritzeko, erakina kokatuta dagoen eremuari dagokion ordenantzarekin bat etorriz.
- b) Egin daitezkeen esku-hartzeak hauek izango dira: berrikuntza, berreraikitzea eta planta berria.
- c) Birgaitze-eragiketak egin beharko dira ezinbestean.
- d) Aukera izango da berritzeko, baina gutxienez hasierako eraikinaren fatxada eta interesa duten elementu komunak mantendu beharko dira.

100.- HAPOn barruko Egituraren Kontserbazioari buruzko Ordenantza Herri Txikietan ordenantzaren arabera, eta eraikin osagarri edo atxikiei gagozkielarik:

- a) Erregimen berezia duten menpeko toki-erakunde jakin batzuetan katalogatutako eraikinari atxikitako eraikinak bakarrik onartuko dira.
- b) Fatxada nagusiei atxikitako eraikinak bakarrik onartzen dira, gehienez ere fatxada bakoitzaren % 15era arteko portzentajea.
- c) Fatxada nagusietan ez da onartuko atxikitako eraikin berririk egitea.
- d) Fatxada sekundarioetan, beheko solairuan zeramikazko estalki inklinatuko gorputzak atxikitzea onartuko da, fatxada bakoitzaren % 80 baino gehiago ez estaltzekotan.